# Comunicado mani pro-okupación Iruñea

GAZTETXE DE IRUÑEA EUSKAL JAI :: 05/02/2006

Asamblea Detenid@s Euskal Jai

más abajo en euskera)

Nos hemos juntado hoy mucha gente para reivindicar una vez más que la okupación no es delito porque no aceptamos su modelo de sociedad (represiva) ni sus normas ni sus castigos.

Porque ya sabemos que quieren controlar todos los aspectos de nuestras vidas y que si nos salimos del camino marcado estamos expuestas a la marginación, criminalización y represión.

Aquí en Iruñea el movimiento okupa lo estamos viendo reflejado con los desalojos, detenciones, acoso policial, juicios y sentencias que estamos sufriendo tras el desalojo del Euskal Jai. De esta manera, durante este último año y medio no hemos estado paradas. Sólo en Iruñerria ha habido 15 okupaciones y aunque también ha habido desalojos, ahí tenemos los Gaztetxes de Burlata, Barañain y Zizur.

También tenemos una larga lista de marrones, algunos en proceso y otros de los que ya hay sentencias condenatorias tan alarmantes como la de nuestro compañero, que tras un montaje policial vergonzoso, ha sido condenado a dos años y cinco meses de prisión. Este mismo juez, Fermín Otamendi Zozaia, ha condenado a otros tres compañeros a penas de 12 y 15 meses de cárcel y será quién lleve los próximos juicios.
El primero durará tres días y empieza el lunes. Serán juzgadas 12 personas. 7 de ellas permanecían dentro del Gaztetxe en el momento del desalojo y las otras 5 las detuvieron en la calle.

El siguiente será el día 21-F en el que se juzgará a dos personas por realizar una acción en la catedral y a otra víctima del montaje munici-policial.
Todas ellas se enfrentan a peticiones de entre 8 y 18 meses de cárcel bajo la acusación de atentado y desobediencia grave. En ningún caso por okupación, que era lo que estábamos haciendo.

Por lo visto cualquier iniciativa popular sirve de excusa para que nos nieguen nuestro derecho a crear espacios abiertos y participativos. Todo esto parece que les molesta sobremanera y se vuelcan con todo su potencial represivo frente a una parte de la sociedad creativa.

Por ejemplo, se sacan de la manga leyes como la del Pacto Cívico que no es más que un intento de obligar a las personas a hacer de sus vidas un rebaño de ovejas dirigidas hacia el matadero por una corridera por la cual no vamos a pasar. Está enfocado para hacer de Iruñea y de otras ciudades un escaparate que no traerá más que desigualdad social y represión.

Hemos dicho muchas veces que PAMPLONA APESTA. Pero este hedor no se siente sólo en Iruñea , es el mal olor de la justicia podrida, de los gobiernos corruptos, (ahí tenemos el ejemplo de Sanz y familia y el chanchullo con las obras del Canal de Navarra), de los sicarios de uniforme y un largo etcétera que todas y todos conocemos.

Lo que apesta, en suma, es el abuso de poder.

Pero no todo son malas noticias. En Euskal Herria hay un montón de Gaztetxes en pie funcionando viento en popa así como un sinfín de Gastes Asanbladas en pueblos y barrios. También os tenemos que decir que se ha convocado una Gazte Martxa por espacios okupados de Euskal Herria que empieza el 2 de Abril en Maule (Zuberoa) y terminará con una mani el 7 de Mayo en el solar del Euskal Jai coincidiendo con lo que sería el 12 aniversario de la okupación. ¡Hay que apuntarse!
Y por otro lado, aquí en Iruñerria ya hay un colectivo anti represivo que está haciendo frente a todas estas agresiones y que está trabajando por aglutinar en un movimiento más amplio a todas las personas represaliadas por su lucha por la okupación y así aunar fuerzas tanto para defendernos de sus ataques como para llevar adelante nuestros proyectos.
Por último, queremos animar a la gente a participar en las convocatorias de los próximos días 6,7 y 8 de febrero. El lunes a las 7 hay concentración en el Ayuntamiento, y estad atentas a las que vengan. ¡Y ocupad, joder!

ASAMBLEA DE DETENIDAS Y DETENIDOS DEL EUSKAL JAI.

* * * * * * * * * * * * * * * * * * * * * * * *

Pertsona asko bildu gara gaur hemen okupazioa ez dela delitua aldarrikatzeko eta beraien jendarte errepresiboaren eredua, beraien arauak, eta beraien zigorrak ez ditugula onartzen argi eta garbi oihukatzeko.

Badakigu nola nahi gaituzten, zonbiak bezala, gure bizitzen arlo guztiak kontrolpean, jakinda, markatutako bidetik ateraz gero, bazterketa, kriminalizazioa eta errepresioa jasoko ditugula.

Euskal Jai Gaztetxea bota zutenetik Iruñerriko okupazioaren aldeko mugimendua hamaika kanporatze, ehunko atxiloketak, jazarpen poliziala , epaiketak eta sententziak pairatzen ari da.

Honela, azkenengo urte t'erdiz ez gara geldirik egon. Iruñerrian bakarrik 15 okupazio egon dira eta naiz eta kanporaketak gertatu, hortxe ditugu Burlata, Barañain eta Zizurko Gaztetxeak ZUTIK ETA TINKO!!!

Baina gure marroiak ere baditugu. Batzuk epaitegian daude oraindik. Beste batzuen aurkako sententziak ezagutu ditugu jadanik. Honen adibide, gure kidearen aurka atera berri den sententzia. Hau dela medio, eta muntai policial batean oinarrituta, Fermin Otamendi Zozaia epaileak 2 urte eta bost hilabeteko kartzela zigorra ezarri dio gure kideari. Epaile honek 2 urte baino gutxiagoko kondenekin lehenengo delitua izanda jendea espetxeratzen du. Honetaz gain, 12 eta 15 hilabeteko kartzela zigorra ezarri die beste hiru gazteri. Datozen epaiketak aipatu epaileak ere zuzenduko ditu. Ulertzen duzue orain zergaitik gaude

kezkatuak?

Astelehenean hasiko da hiru egunez iraunduko duen epaiketa. 12 lagun epaituko ditu arestian aipatu dugun epaileak. Hauetako 7 zeuden Gaztetxearen barruan. Beste 5 kalean atxilotu zituzten.

Hurrengo epaiketa otsailaren 21ean burutuko da. Oraingo honetan bi lagun epaituko dute katedralera igotzeagatik; hirugarrena berriz udaltzaingo eta poliziaren arteko muntai baten ondorioz epaituko dute. 8 eta 18 arteko kartzela zigorra ezarri nahi diete atentatua eta desobedientzia larriagatik. Azpimarratu nahi dugu OKUPAZIOA ez dela epaitzen, eta hori zen hain zuzen ere egiten ari ginena.

Antza denez, edozein ekimen herrikoi aitzakitzat hartzen dute eremu ireki eta partehartzaile sortzeko dugun eskubidea guri ukatzeko. Argi ikusten da mindu egiten ditugula gure sormenarekin, eta gure aurka zuzentzen dute beraien errepresio basatia.

Honen adibide garbia Pacto Civico daukagu. Udalak adostutako hitzarmen honek ardi bilakatu nahi gaitu. Hiltegira eraman nahi gaituzte, baina guk ez dugu nahi beraiek markatutako bidea zeharkatu. Iruñea bezalako hiriak "escaparate" hutsak izatea nahi dute. Jendearen arteko ezberdintasun ekonomiko eta sozialak eta errepresio gehiago izanen dira honen emaitzak.

PAMPLONA APESTA askotan esan dugu. Baina kiratsa ez dugu soilik hemen usaintzen: Justicia ustelaren kiratsa da eta baita agintari ustelen kiratsa. (Honen adibide Sanzek eta senideen afera Nafarroako ubidea dela eta). Eta abar luze bat.

Hauxe da bada!!! Poterearen gehiegikeriari kiratsa dario!!!

Baina, berri onak ere baditugu, zorionez. Euskal Herrian hamaika Gaztetxek zutik jarraitzen dute, tinko eta bizkor. Gazte Asanblada pilo bat ere daude auzoz auzoz ta herriz herri. ZORIONAK TA TXALO BERO BAT BERAIENTZAKO!!!!!

Euskal Herriko gune okupatuak zeharkatuko dituen martxa baten berri ere eman behar dizuegu gaur. Martxa hau Maulen (Xuberoan) hasiko da Apiriliaren 2an eta Maiatzaren 7an Euskal Jairen orubean bukatuko da manifa batekin. Data honetan 12 urteurrena beteko genuke. Izena eman ezazue!!!

Eta beste albiste on bat ere emanen dizuegu. Erepresioaren aurkako talde bat sortu da hemen Iruñerrian. Eraso guztiei aurre egiteaz gain okupazioa defendatzeagatik errepresaliatu izandakoek osatutako mugimendu zabal bat abian jarri nahi dute. Horrela gure egitasmoak errezago eramango ahal izanen ditugu aurrera eta beraien erasoetatik ere hobeto defendatuko dugu gure burua.

Bukatzeko, datozen deialdietara gurekin etortzera animatzen zaituztegu. Esan bezala, otsailaren 6, 7 eta 8 epaiketa burutuko da eta astelehenean bertan konzentrazio bat eginen dugu arratsaldeko 19tan udaletxe plazan. Adi egon ¡ Eta OKUPA kopon!!!

EUSKAL JAIREN ATXILOTUEN BATZARRA.

*https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/comunicado_mani_pro_okupacion_irunea*